

“HAMAIKA ENTZUTEKO! 2018” IRRATI-PIEZEN LEHIAKETAREN OINARRIAK

Donostia Kulturak eta Casares Irratiak “Hamaika entzuteko!” irrati-piezen lehiaketa antolatzen dute. Irrati-pieza labur eta originalen ekoizpena eta difusioa bultzatzea da lehiaketaren helburua. Gaia guztiz askea da: edozein motatako pieza izan daiteke.

Parte hartzea

Adin eta nazionalitate guztietako herritarrek har dezakete parte lehiaketan. Taldeka nahiz banaka hartu daiteke parte.

Irrati-piezak

Bost minutu baino gutxiago irauten duten audio-piezak aurkeztu behar dira.

Onartutako hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

Irrati-piezak casaresirratia@gmail.com helbidera bidali behar dira. Lanak bidaltzeko azken eguna 2018ko azaroaren 30a izango da.

Audioak originala, ez-komertziala, irratan emititu gabea eta beste sariketetan saritu gabea izan behar du.

Casares Irratiak lehiaketako parte hartzaileen zerbitzura jartzen ditu bere estudioak eta bestelako baliabideak, eta lehiaketara aurkezteko irrati-pieza bertan grabatzeko eta editatzeko aukera eskaintzen du. Dena dela, lehiaketan parte hartzeko ez da beharrezkoa Casares Irratia erabiltzea; lehiakideen esku dago zein baliabide erabili irrati-piezak sortzeko.

Sariak

- Irrati-pieza onenaren saria: 800 euro
- Euskarazko audio onenaren saria: 600 euro

Euskarazko audio onenaren saria euskaraz aurkeztutako audio onenari emango zaio, baldin eta irrati-pieza onenaren saria lortu ez badu.

Sari-banaketa 2018ko abenduan izango da.

Epaimahaia

Aurkeztutako lanaren originaltasuna, sormena eta interesa izango ditu kontuan epaimahaiak.

Epaimahakideen erabakia apelaezina izango da. Epaimahaiak eman gabe utz dezake sari horietatik edozein.

Harremanetarako

Zalantzarik baduzu, jar zaitez harremanetan antolatzaileekin:

casaresirratia@gmail.com

Lege-baldintzak

Donostia Kultura eta Casares Irratia ez dira materiala bidaltzean, birusak edo bestelako arrazoiak direla eta, sor daitezkeen jazoeren erantzule.

Oinarri hauek onartzea nahitaezkoa da lehiaketan parte hartzeko, eta, beraz, sariak irabazi ahal izateko. Partaideren batek oinarrietan ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, lehiaketatik kanpo geldituko da, automatikoki.

Lehiaketara aurkeztutako partaidea ez den beste egile batek beste hizkuntza batean egindako audio baten edo audio horretan oinarritutako lan baten itzulpen hutsak diren audioak ez dira onartuko. Nolanahi ere, audioaren edukia lehiaketan onartutako hizkuntza batera itzultzen lagun dezakete hirugarrenek.

Egile-eskubideak

Lehiaketara hirugarrenen jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak urratzen dituen materialik ez dutela aurkeztuko bermatu behar dute partaideek. Horrenbestez, partaideek auzi horretatik kanpo utzi behar dituzte Donostia Kultura eta Casares Irratia. Hortaz, partaideek hirugarrenen eskubideei buruzko arauak ez badituzte betetzen edo arau-hausteren bat egiten badute, Donostia Kultura eta Casares Irratia ez dira horren erantzule egingo. Lehiaketako partaideari dagokio Donostia Kultura eta Casares Irratia ardura horretatik salbuestea.

Lehiaketako partaideek Donostia Kultura eta Casares Irratiari uzten diote aurkeztutako audioak ustiatzeko eskubidea non sartzan diren audioa erabili, zabaldu, banatu, eman, publikoki komunikatu eta Internet edo bestelako ikus-entzunezko baliabide baten bidez dibulgatu eta erreproduzitzeko eskubideak. Halaber, Donostia Kultura eta Casares Irratiak audioa eraldatu egin dezakete, muntaia laburragoak egiteko edo beste audio batzuekin batera editatzeko. Lagapen hori dohainik eta modu ez-esklusiboan egingo da, mundu osorako.

Bestalde, hautatutako eta jasotako lanak sustapenerako eta/edo hedapenerako erabiltzeko eskubidea dute antolatzaileek. Audioak atal honetan zerrendatu ez diren xedeetarako erabiltzeko, egilearen baimena behar da.

Originalak eta emititu gabeak izan behar dute audioek. Ez dira onartuko aurrez sarituak izan diren lanak, edo hirugarrenen jabego intelektualaren edo industrialaren eskubideak urratzen dituztenak. Era berean, audioek ez dute pertsona fisiko edo juridikoen jabegoa, osotasuna edo irudi ona kalteatu behar.

Aurkeztutako audioak ustiatzeko eskubidea lagatzeagatik, Donostia Kulturak eta Casares Irratiak eskubidea dute audioak Internet edo bestelako ikus-entzunezko baliabide baten bidez zabaltzeko edo argitaratzeko, baina ez daude horretara behartuak.

Lehiaketa amaitu ondoren, erakundeek egoki deritzen audioak eskuragarri egongo dira www.casaresirratia.info helbidean, antolatzaileek egoki deritzoten arte.

Azken klausulak

Lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa da klausula hauek onartzea. Oinarrietan jasotzen ez diren gaiak dagokienez, Donostia Kultura eta Casares Irratiak izango dute erabakitzeko eskubidea.

Arazoa teknikoak direla eta entzun ezin daitezkeen audioen erantzule ez dira antolatzaileak.

Epaimahaikideek ezin dute lehiaketan parte hartu. Era berean, ezin dute parte hartu lehiaketaren antolaketan aritu direnek, hala nola Donostia Kultura eta Casares Irratiko langileek.

Donostia Kultura eta Casares Irratia ez dira egingo beren kontrolpetik kanpo dauden, edo sareko operadore, zerbitzu-emaile bitartekari edo hirugarrenek sortutako jazoera hauen erantzule: galerak edo atzerapenak, etenaldiak, funtzionamenduaren eskuragarritasun edo jarraitutasun eza, transmisio-arazoak, informazioaren galera, iruzurra, sareko akatsak, softwarearen funtzionamendu-arazoak, sarrera-, komunikazio- edo erantzun-akatsak, lehiaketaren aldaketak eta abar.

Donostia Kulturak eta Casares Irratiak eskubidea dute dokumentu ofizialen bidez (NAN, gidabaimena eta abar) lehiaketako partaideen nortasunari buruzko egiaztapenak egiteko.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak "PARTE-HARTZAILEAK" fitxategian sartuko direla aitortzen dugu. Horren helburua komunikazioa da. Datu horiek marketin-enpresei, epai-mahaikideei zein babesleei lagako zaizkie. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian erregistratu dugu, eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu. Fitxategiaren erantzulea Donostia Kultura bera da, eta, nahi izanez gero, aipatutako Legean aurreikusitako sarbide-, zuzenketa-, ezeztapen- eta aurkaritza-eskubideak baliatu ditzakezu; horretarako, eskaera bat bidali behar duzu datuensegurtasuna@donostia.org helbidera, NANaren kopiarekin edo nortasuna egiaztatzeko beste agiri batekin batera.